



“Ez nuen jakin EHU gobernatzeko”

Juan Ignacio Perez Iglesias

Baikortasuna, apaltasuna, tolerantzia, eszeptikotasuna.

ARITZ GALARRAGA

Argazkia: Iñigo Azkona

Zientziaren balio nagusiak omen. Gure gaurko gizartearenak bezalaxe.

Oraina baloratzea ez da erraza; hemendik 25 urtera ez dakit zer esango duten, baina balio horiei dagokienez, egungo gizartea ez da duela 50 urtekoa baino txarragoa.

Ikertzea ona da, eta beharrezkoa. Zertarako baina?

Unibertsoa, natura eta gizakia bera hobeto ezagutzeko. Ezagutzea da ikertzearen egiazko helburua edo helburu nagusia.

“Ezagutza boterea da”, esan zuen Baconek; baina botereak kontrolatzen du ezagutza.

Ezagutza eta boterearen arteko harremanak korapilatsuak izan dira beti, baina gero eta askeagoa da ezagutza. Eta munduan askatasunak atzera egiten ez badu, gero eta askeagoa izango da.

Eszeptikoa zaitugu. Badira eszeptikoekiko eszeptiko direnak ere.

Ez da harrizkoa, eszeptiko gisa agertzen diren batzuek eszeptikotasunaren dogmatismoa agertzen baitute.

Eszeptizismoa ez da dogmatismoa, beraz.

Definizioz eszeptizismoa ezin izan daiteke dogmatikoa, baina gauza bat da balioa eta beste bat, oso bestelakoa, balio horren defendatzaile zenbaiten egiazko izaera.

Baina maila berean daude mamuetan sinestea eta transgenikoen aurka egotea?

Ez daude maila berean, transgenikoen aurka egoteko argudioak eman daitezkeelako. Argudioak zuzenak ala okerrak izan daitezke, baina hori beste gauza bat da.

Zure kasuan, biologiako ezagutzek lagunduko zizuten EHU hobeki gobernatzeko.

Biologiako ezagutzek sistema konplexuak ulertzen lagundu didate; eta uste dut EHU ulertzen dudala. Baina sistema bat ulertzeak ez dakar, berez, sistema hori gobernatzeko jakitea. Eta nik ez nuen jakin.

2008ko hauteskunde porrota, Bolognaren eta campus polizia-aren aurkako hautua izan zela esan zuten batzuek.

Hori pentsatzea, beste edozer pentsatzea bezala, zilegi da, eta doakoa. Ezetza eskatu zutenak, baina, CCOO eta PSEren inguruko katedradunak izan ziren. Atera kontuak!

Gradu titulu guztiak euskaraz eskaini behar omen ziren, iazko.

Ez dut gogoratzen, baina hala badiozu hala izango da. Oker ez banago denak edo ia denak eskaintzen dira euskaraz.

Herrialde onenen baloreak omen ditugu, baina unibertsitate publikoa ez dago onenen artean.

Esango nuke, unibertsitate eta ikerketan, Espainia bezain kontserbadorea eta atzerakoia dela Euskadi. Hortaz, nola egongo dira bere unibertsitateak onenen artean? ■

